



2014KO MARTXOAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maria Arantzazu Bengoa Gorosabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2014ko otsailaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2013KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Ogasun Batzordeko presidentea den Goenaga zinegotziak 2013ko aurrekontu likidazioaren berri ematen du, likidazioaren datu esanguratsuenen azalpena eginez.

Bestalde eta likidazioa egin ondoren 2014ko aurrekontuari txertaketa kredituen bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketa egin dela esaten du. Txertatutako kredituak guztira 786.445,53 €koak izan dira eta hauetatik garrantzitsuenak Kanpandegiko biribila eta bidegorriari dagozkionak dira.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du bi aipamen egin nahi dituela; bat kiroldegi-ko partidei dagokienean, eta esaten du eskerrik udalak ekonomi saneatua duen ze bestela arazoak izango lirakela; eta beste alde batetik esaten du kiroldegiaren egokitzapenerako 180.000 €ko partida azaltzen dela eta honen inguruan esan nahi duela legegintzaldirako ekonomi eta finantza plana egitea eskatu zutela eta ez dela egin, eta horregatik abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera ere harritu duela kiroldegiko partidenak eta bestalde kiroldegiko egokitzapenarena ez dutela oso ondo ulertzen zertan datzan eta beraz egin behar ez denik ere ez duela esaten baina ez dakienez abstenitu egingo dela.

Goenaga zinegotziak alde batetik eta Alkateak bestetik argibideak ematen dituzte kreditu aldaketa honetan barneratzen diren eta aipamena egin zaien kiroldegiko partidei buruz.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 6 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta 6 abstentziaz (EAJ, PSE-EE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	68.100,00 €
III	Finantza gastuak	10.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	4.500,00 €
VI	Inbertsio errealak	229.500,00 €
VII	Kapital transferentziak	80.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		392.100,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK



Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	34.227,60 €
VIII	Finantza aktiboak	357.822,40 €
GUZTIRA		392.100,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- LAZKAO EDATEKO UREZ HORNITZEKO UDAL ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA.-

Lazkaoko Udalak etxeko edateko ur hornidura zerbitzua ematen du Toki Araubidearen Oinarrizko Legearen 26. artikulua agindutakoa betez.

Hau honela eta udal zerbitzu teknikoek prestatuta, Lazkao edateko urez hornitzeko udal zerbitzuaren erregelamendu proiektua aurkeztu da bere onarpenerako.

Erregelamendu proiektu hau bai Ogasun Batzordeak bai Hirigintza Obra eta Zerbitzuen Batzordeak informatua izan da.

Erregelamendu proiektu hau aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Lazkao edateko urez hornitzeko udal zerbitzuaren erregelamendua hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Erregelamendu hau jendaurreko erakustaldian jartzea 30 laneguneko epean.
- 3.- Erakustaldi denboraldian inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betiketzat hartua joko litzateke, espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- BATZORDE INFORMATZAILEAREN PRESIDENTE IZENDAPENA.-

Alkateak esaten du Ingurugiroa eta Lehen Sektorea Batzordearen Presidentea zen zinegotziak zinegotzi kargua utzi egin zuenez, batzordeko presidenterako Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotzia proposatzen duela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.



VII.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 15. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 15. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 15. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA BEDERATZI ZENTIMOTakoa (69.768,09 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 15. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

VIII.- INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENAREN EREDU BERRIA, OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEK IZENPETU BEHARREKOA.-

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalentsat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoa dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema el-karreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak betez.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari *dela*:

"1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erki-degoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen diz-



kien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babeska eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatueta edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko."

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hor-taz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....

d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

..... :"



Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzaren hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentazioa euskeraz bakarrik bidali zaio-la eta ez dela lehenengo aldia dokumentazioa bi hizkuntzatan bidaltzeko eskatzen duena, eta horren aurrean abstenitu egingo dela.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Osoko Bilkurak, Ogasun Batzordearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, aldeko hamaika botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), honako hau

ERABAKI DU

LEHENA: Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena izenpetzea, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.

BIGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak Udalari informazioa emateko D-3 eranskin ereduak izenpetzea.

HIRUGARRENA: Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Lazkaoko Udalaren izenean eta ordezkartzan izenpetu dezan.

LAUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak izenpetuta.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

